

2007ko abuztuaren 9an, OSTEguna, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ez Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

1.- 2.006KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Aduna, 2007ko abuztuak 3.

ALKATEA.

2.007KO ABUZTUAK 9.

EZ OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:

Arantza Aburuza Alkorta.

Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabeak:

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Iker Iturrioz Lekuona.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko abuztuaren bederatziko hogeitau orduak izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.006KO KONTU OROKORRA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia eman eta indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteaz, jendurreko erakusketan jarri eta alegaziorik izan ez denez, gai hau botutara jarriaz, Udalbatzak, aho batez, 2006ko Kontu Orokorra onartzea erabaki du.

Beste Aztergairik gabe, hogeitau ordu eta hamar minutu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.